



FUNTSEZKO JAEDUERAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat jarduera ondo egitea ezinbestekoa da, baita enpresaren antolaketa eta produkzioan egon daitezkeen arazoak konpondu konpontzen jakitea ere. Beraz, laburbilduz, enpresa batek bere proiekturako eta hau bezeroei transmititzeko, bezeroekiko harremanak mantentzeko eta diru sarrerak izateko beharrezkoak diren jarduerak.

Hasteko, produkzioari dagokionez, gure alkatxofa sortu ahal izateko enpresa desberdinen produktu desberdinak erosi behar izango ditugu. Horretarako, enpresa hauek aukeratu, beraiekin harremanetan jarri, erosi beharreko produktu kopurua aukeratu, prezioa zehaztu, etab egin beharko dugu. Antolakuntza alde aurretik egitea ezinbestekoa da, ondoren errealitatean gauzatzerako momentuan gaizkiulertu edo sorpresarik ez egoteko. Bestalde, gure azken produktua sortzeko muntaiaren momentua ere oso garrantzitsua da, izan ere, muntaia zuzena izango ez balitz alkatsofak ez lukeelako behar bezala funtzionatuko. Hori dela eta, muntai prozesua ere klabea da prozesu guzti honetan, eta beraz hau ere alde aurretik prestatu beharko litzateke, zehazki nola egin behar den ikasi eta jarduera gauzatzearen momentuan zalantzarik ez izateko.

Bigarrenik, begibistakoa da, enpresa batean gauzak ez direla beri behar bezala ateratzen, horregaitik, arazoak agertzen diren momentuan hauek konpontzen jakitea ezinbestekoa da. Leheneik eta behin, webgunearekin arazoak eduki ditzakegu, eta kanal hau gure bezeroekin harreman estuagoa izateko beharrezkoa denez arazo hauei konponbide bat bilatu beharko genien ahalik eta azkarren. Beraz, irtenbide moduan programazioan aditua den norbat izango dugu gure ekipoan, honek webgunearen inguruan besteek baino ezagutza gehiago izango duelako. Aitzitik, produkzioan geratu daitezkeen oztopoak argitzeko inegiariak ere beharko ditugu, arrazoi berberarengaitik. Era horretan, arazoak agertzen direnean ez gara alkatxofa produkzio eta salmenta prozesua gelditzera behartuak ikusiko, azkar konpondu ahal izango ditugulako.

Plataformako edo Sareko jardueri dagokionez, esan bezala programazioan aditua den norbait kontratatuko dugu, honek webgunea sortu dezan. Jarduera hau garrantzi handikoa da, bertan txertatuko baitugu gure enpresa, proiektu eta langileei buruzko informazioa. Baita azken produktuaren funtzionamendu eta ezaugarrien informazioa ere, bezeroek erosteko momentua zalantzarik ez izateko.